

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Euskara

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 12an hartutako erabakiaren laburpena: 2019-2020 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartzea

TBDNS(Identif.): 468577

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke:

Lehena. Onuradunak

Deialdi honen bidez bi programa arautzen dira: arrunta, diru-sarrerei dagokienez ezarritako muga gainditzen ez duten herritarrei zuzendutakoa; eta espezifikoak, talde zehatzei zuzendua: gurasoei, aisialdiko begirale zuzendariei eta eskola kiroleko entrenatzaile, epaile, zuzendari eta begiraleei, edo horretarako ikasketak egiten ari direnei zuzendutakoak.

Bigarrena. Helburua

2019-2020 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak ematea. 2019ko uztailetik 2020ko ekainera bitartean egiten diren ikastaroetarako emango dira diru-laguntzak. HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) onetsitako zentroetako batek emandako ikastaroak lagunduko dira diruz, direla zentroan bertan egindakoak, direla autoikaskuntzakoak, direla jardun bikoak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 12an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 149.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2020ko uztailaren 31 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 12a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria

ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO